

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal honetan, alde batetik, kanpoko enpresen esku utzi ezin daitezkeen jarduerak: gure enpresaren muina osatzen dutenak aktiborik garrantzitsuena direlako.

Hasteko, gure enpresaren funtsezko jarduera salmenta izango da, guretzat oso garrantzitsua delako. Gure intentzioa jende gehienari iristea da, horrela gure produktuaz gozatuko dute. Produktua ospetsuagoa egingo da eta arrakasta handia edukiko du, produktu honen salmentarako egin ditugun iragarkien ondorioz.

Hortaz, taldekide bakoitzak zeregin bat izango du, bakoitzak dituen abileziak eta trebetasunak kontuan hartuz:



Alde batetik, beste enpresa elkarteekin harremanetan jartzeko trebezia duen norbait dugu, elkarte horiekin hitz egiteko eta akordio onuragarri eta probetxugarri batera iritsten lagunduko diguna. Lan horretaz lker arduratuko da, enpresa batzuekin kontaktua mantendu eta haiekin duen harremanari ahalik eta probetxu gehien aterako dio, akordio onuragarri batera iritsi gaitezen, eta enpresekin eta bezeroekin bilerak egingo ditu. Ordenagailuan lan egiteko, webguneetan ibiltzeko eta haiek ondo begiratu eta analizatzeko oso trebea den norbait taldean ere badugu, hori Luken da, eta hortaz arduratuko da. Azkenik, Gaizka iragarkiak diseinatuko ditu, gauza horietan oso trebea den norbait delako, webgunetan jarriko ditugun iragarkiak berak egin eta disenatuko ditu; eta Gorka eta Mainer, enpresak dituen irabazi-iturrietaz arduratuko dira, diru mundua oso ondo kontrolatuta dutelako.

Ondoriozta dezakegu, jarduera guztietatik batzuk guk geuk egingo ditugula, eta besteak, enpresa bati eskatuko diogu, hau da, kanpoko enpresa bat kontratatuko dugu, gelditzen diren jardueretan laguntzeko.